




Nafarroako
Gobernua

AURRETIAZKO BORONDATEEN A G I R I A





Osasun Departamentua

Osasun Laguntzako Zerbitzua.

Helbidea: Amaia k., 2 A - 3. solairua. 31002 - Iruña

Telefonoak: 848 423511 (telefono deien banagunea), 848 423535/ 848 423506.

Helbide elektronikoa: aseprest@cfnavarra.es

Aurretiazko Borondateen Agiria
© NAFARROAKO GOBERNUA
Imprimaketa: Gráficas Lizarra
Lege gordailua: NA-2.601/2006

Aurretiatzko Borondateen Agiria

Gaur egun, herritarrek gero eta gehiago pentsatu eta parte hartzen dugu gure osasunaren gainean eragina duten erabakietan. Geure osasuna eta geure bizitza kudeatzeko modua errespetatzearen barrenean sartzen da osasun tratamendu jakin bat hartu nahi den edo ez erabakitzeko eskubidea izatea, nahiz eta erabaki hori bat ez etorri zenbaitetan sendagileen iritziarekin.

Maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legeak, gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiatzko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen dituenak, aipatzen du nork bere erabakiak adierazteko eta etorkizunerako zainketa planifikatzeko aukera, aurretiatzko borondateen agiriaren bidez egin daitekeena.

Aurretiatzko borondateak edo jarraibideak azalduz, aldeztu aurretik erabakitzen ahal dugu zernolako osasun tratamendu eta zainketak hartu nahi ditugun geure borondatea adierazteko ahalmena galtzen dugunean.

Aurretiatzko borondateen agiria idazteko, beharrezkoa da aldeztu aurretik gogoeta egitea agiriaren helburu eta ondorioei buruz. Gogoeta hori egiteko, lagungarriak izanen dira famili medikuaren eta mediku espezialistaren argibideak eta babesa, bai eta fidagarriak eta hurbilekoak zaizkigun beste pertsonenak ere, nahiz eta osasun arloko langileak ez izan.

Horretaz gain, aurretiatzko borondateen agiria izanez gero, osasun arloko langileek zuzenean jakiten ahal dute zein diren beren gaixoen nahiak eta lagungarria gerta daiteke esku-hartze medikoak erabakitzeko unean.

Gida honek laguntza eman nahi die borondateen agiria egin gogo duten pertsonari, argibideak ematen baititu agiriaren balioari buruz eta Nafarroan jadanik zabalik dagoen Aurretiatzko borondateen erregistroaren funtzionamenduari buruz.

Zer da aurretiazko borondateen agiria?

Agiri bat da, zeinetan pertsona batek adierazten baitu nolako osasun laguntza hartu nahi duen bere borondatea aditzera emateko gauza ez den unean.

Nork egiten ahal du aurretiazko borondateen agiria?

Nafarroan, hamasei urtetik goitiko edo emantzipatutako adingabe guztiek, gaitasunik aski badute eta libreki erabakiz gero.

Nola egilesten da?

Aurretiazko borondateen agiriak balio izateko, honako bi modu hauetan egin daiteke:

- **Hiru lekuko adindunen aurrean.** Kasu honetan, horietatik bik, gutxienez ere, ezin izanen dute interesatuarekin bigarren mailarainoko ahaide-loturarik ez eta ondare-harremanik izan.
- **Notario aurrean.**

Zer jarri behar da agirian?

- **Egileslearen eta lekukoaren identifikazio datuak:**

Izen-deiturak, NANA, helbidea eta telefonoa.

- **Aurretiazko borondateen adierazpena.**

Adierazpenaren edukia norberak erabaki behar du, eta honako hauek sar daitezke:

1. Norberaren bizi proiektua zedarritzen duten iritzi eta aukera pertsonalak eta, zehazki, bizitzaren azken uneetan edo ezintasun fisiko edo psikiko larria gertatzen denean hartu beharreko erabakietarako argigarri izan daitezkeenak.
2. Osasun egoera zehatzak, zeinetan norberak nahi duen kontuan hartzea tratamendu jakin batzuk onartu edo errefusatzen direla.
3. Egoera horietan hartu nahi diren edo nahi ez diren tratamendu eta zainketei buruzko jarraibideak.
4. Organo edo ehunak birlandatzeko, irakaskuntzarako edo ikerketarako emateari buruzko erabakia.

- **Ordez kariaren izendapena.**

Ordez kari izendatzen ahalko da egileslearen borondatea eta iritzi pertsonalak ezagutzen dituen edozein pertsona, egilesleari kasu egiten dion medikuarekin edo osasun taldearekin bozeramaile lana egin dezan.

Pertsona horrek saiatu behar du egin dadin egilesleak hautatuko zukeen aukera, erabakitzeko moduan egon izan balitz.

Komeni da ordez kariak jakitea horretarako izendatu dutela, eta izendapena onartu eta sinatzea.

Agiri eredua

Aurretiazko borondateen agiria egiteko, badira eredu bat baino gehiago, behar duenari lagungarri gerta dakizkiokeenak. Gida honetan eredu horietako bat sartu da, eta bertan osasun egoera jakin batzuk eta haiei dagozkien jarraibide zehatzak ematen dira.

Agirian zer jarri erabakitzeko, nork bere gogoeta egin ondotik, konfiantzazko jendeari galdetu eta osasun arloko profesionalekin hitz egin beharko litzateke.

Agiria aldatu edo indarrrik gabe utz daiteke?

Aurretiazko borondateen agiria noiznahi deusezta daiteke, edo bere ordezkari bat jarri, jarraibideetan egindako aldaketak islatzeko edo egoera berriei egokitzeko, hasierako agiria prestatzeko erabili zen prozedura berberaren bitartez.

Norentzat da agiri hau?

Agirian aipatzen diren jarraibideak sinatzaileari kasu eginen dioten mediku arduradunarentzat eta osasun taldearentzat dira, aintzat har ditzaten hura bere borondatea adierazi ezinean gertatzen bada.

Osasun arloko profesionalek agirian aipatzen diren jarraibideak errespetatu eta hartutako erabakiak historia klinikoan idatzi beharko dituzte.

Baldin eta gaixoak izendatutako ordezkariarik badago, osasun taldeak harekin hitz egin beharko du bidezko erabakiak hartzeko, kontuan hartuz agirian aipatzen diren jarraibideak eta iritzi pertsonalak.

Komeni da ordezkariak edo konfiantzazko beste pertsona batzuek agiriaren berri edo haren kopia bat izatea.

Non entregatu behar da?

Ahal bada, hobe da aurretiazko borondateen agiria **Osasun Departamentuan** entregatzea (Amaia kalea, 2-A-lruña), Nafarroako Aurretiazko Borondateen Erregistroan sartzeko.

Baina haren kopia bat norbera zaindu ohi duten osasun zentroan edo zentroetan ere utz daiteke, historia klinikoan sar dezaten.

Zertarako balio du Aurretiazko Borondateen Erregistroak?

Nafarroako Aurretiazko Borondaten Erregistroan aurretiazko borondateen agiriak sartu eta artxibatzen dira.

Erregistroa erabiltzen da osasun arloko profesionalek aurretiazko borondateen agirien berri izan eta, beharrezkoa denean, haien edukia kontsultatu ahal dezaten.

Nafarroako Aurretiazko Borondaten Erregistroaren eta Estatuko Aurretiazko Jarraibideen Erregistroaren eta aurretiazko borondateen beste erregistro batzuen artean behar diren harremanak finkatuko dira, bertan dauden agiriak kontsultatu ahal izateko.

Nola inskribatu agiria Nafarroako Aurretiazko Borondateen Erregistroan?

- Agiriaren egilesleak eskaera aurkeztu beharko du, Osasun Departamentuari zuzendutako idazkiaren bidez.
- Eskabidearekin batera honako hauek ere aurkeztuko dira:
 1. Nafarroako Aurretiazko Borondaten Erregistroan inskribatu gogo den **agiria**.
 2. Egileslearen eta lekuko gisa jardun duten pertsona guztien **nortasun agiri nazionalaren** edo **pasaportearen** kopia konpultsatua.
 3. Baldin eta aurretiazko borondateen agiria notario bidez baimendu bada, **kopia kautotua** ere aurkeztu beharko da.

Erregistroan inskribatzearekin, aurretiazko borondateen agiriak sartuko dira erregistratutako informazioaren isilpekotasuna bermatuko duen fitxategi automatizatu batean.

Nor sar daiteke Erregistroan?

Pertsona hauek ikus dezakete agiria:

- Egilesleak edo haren legezko ordezkariak.
- Erregistratutako agirian aipatzen diren ordezkariak.
- Egilesleari osasun laguntza ematen ari zaion talde medikoko sendagile arduradunak edo kide batek, gaixoa bere borondatea adierazi ezinean gertatzen bada.
- Erregistroaz arduratzen diren langileek.

Erregistroan sar daitezkeen profesionalak agirien edukia isilpean gordetzera beharturik daude.

Zein da gai honi dagokion araudia?

- 11/2002 Foru Legea, maiatzaren 6koa, gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen dituena.
- 41/2002 Legea, azaroaren 14koa. Gaixoaren autonomia arautzen du, baita informazio eta dokumentazio klinikoaren gaian dituen eskubide eta betebeharrak ere.
- 140/2003 Foru Dekretua, ekainaren 16koa, aurretiazko borondateen erregistroa arautzen duena.



AURRETIAZKO BORONDATEEN
AGIRIA EGITEKO
AUKERAKO EREDUA



Izen-deiturak,, NANa
Helbidea Herria
Telefonoa, erabakia libreki hartzeko gaitasunik eta gogota egiteko informaziorik aski badut.

Adierazten ditut zein diren niri ematen zaidan osasun laguntzan kontuan hartu beharreko jarraibideak, nire egoera fisiko edo psikikoaren ondoriozko gorabeherak direla medio, nire borondatea adierazi ezinean gertatzen naizenean.

I. KONTUAN HARTU BEHARREKO IRIZPIDE PERTSONALAK

Nire bizitza proiektuan bizi kalitateak oso garrantzi handia du, eta bizi kalitate horrek niretzat hainbat zutabe ditu; esate baterako, jarraian aipatzen ditut izan daitezkeenetakoa batzuk:

- Beste pertsona batzuekin nolabait komunikatzeko eta harremanak izateko modua izatea.
- Min fisiko edo psikiko handirik pairatu beharrik ez izatea.
- Independentzia funtzional nahikoa izatea, eguneroko eginbeharretan nire buruaz baliatzeko gauza izaten utziko didana.
- Bizitza ez luzatzea, aurreko lerroaldeetan aipatzen diren gutxieneko baldintzak betetzen ez badira eta egoera konponezina bada.
- Agiri hau interpretatzeko orduan dudarik izanez gero, nahi dut kontuan hartzea nire ordezkariaren iritzia.
- Beste irizpide batzuk ...

II. OSASUN EGOERAK

Nahi dut oro har bete daitezen aurreko puntuan aipatzen diren printzipioak, baita ondotik zehazten diren egoera medikoetan, baina baita beste zenbaitetan ere:

- Eritasun sendaezina, denbora laburrean ezinbestean heriotza ekarriko didana.
- Egoera begetatibo kronikoa.
- Pronostiko oso larriko eritasuna, ezinbestean heriotza ekarriko duena, dagoeneko oso aurreratua dagoena.
- Dementzia larria.
- Beste egoera batzuk ...



III. OSASUN ZAINKETEI BURUZKO JARRAIBIDEAK

Aipatutako guztia kontuan harturik, azaldu ditudan irizpideen arabera, zehaztutako osasun egoera horietan, nire erabakiak honako hauek dira:

- Nire bizitza ez luzatzea alferrik modu artifizialean, hau da, esate baterako, biziari eusteko teknikak erabiliz (aireztapen mekanikoa, dialisia, bihotz-biriketako bizkortzea, zain barnera sartutako jariakinak, botikak edo elikadura artifiziala).
- Behar diren farmakoak eman diezazkidatela, nire eritasunak eragiten dizkidan ongieza, sufrimendu psikikoa eta oinaze fisikoa ahalik eta gehien apaltzeko.
- Hartutako erabakiak batere ukatu gabe, berma diezadatela modu duinean hiltzeko behar den laguntza guztia.
- Ez hartzea egiaztatu gabeko tratamendu osagarri eta terapiarik, haien eraginkortasuna frogaturik ez badago edo nire bizia luzatzeko deus gutxitarako balio badute.
- Haurdun baldin banago eta II. atalean aipatzen diren egoeretakoren bat gertatzen bada, nahi dut agiri honen indarra etenik gelditzea, erditu arte, betiere horrekin fetuak eragin kaltegarririk jasaten ez badu.
- Halaber, adierazten dut nire organoak eman nahi ditudala, birlandatuak izateko, tratamenduetarako, ikerketarako edo irakaskuntzarako.
- Bestelako jarraibideak ...

DATA ETA EGILESLEAREN SINADURA

IV. LEKUKOEN ADIERAZPENA (NAHITAEZKOA)

Behean sinatzen dugunok, denok adindunak izanik, adierazten dugu ezen aurretiazko borondateen agiri hau izenpetzen duen pertsonak egiten zuenaz ongi jabetuta jardun duela eta ez dugula uste erabakia hartzera inork behartu duenik.

Horretaz gainera, lehenbiziko eta bigarren lekuko garenok adierazten dugu ez dugula ahaide-loturarik ez eta ondare-harremanik ere agiri hau izenpetzen duen pertsonarekin.

Lehenbiziko lekukoa

Izen-deiturak

NAN Helbidea

Herria Telefonoa

DATA ETA EGILESLEAREN SINADURA



Bigarren lekukoa

Izen-deiturak

NAN Helbidea

Herria Telefonoa

DATA ETA LEKUKOAREN SINADURA

Hirugarren lekukoa

Izen-deiturak

NAN Helbidea

Herria Telefonoa

DATA ETA LEKUKOAREN SINADURA

V. ORDEZKARIA (AUKERAKOA)

Nire ordezkaria izateko, nire borondatea adierazi ezinean gertatzen naizenean, kasu eginen didan medikuarekin edo osasun taldearekin hitz egin dezan, pertsona hau izendatzen dut:

Izen-deiturak

NAN Helbidea

Herria Telefonoa

Beraz, nire ordezkariari baimena ematen diot, nire osasunari buruz behar diren erabakiak har ditzan, baldin eta nire buruaz baliatzeko gauza ez banaiz.

Ordezkaritari jar dakizkiokeen baldintza edo mugak:

- Agiri honetan aipatzen diren aurretiazko borondateen aurka ez jotzea.
- Baldintza zehatz batzuk.
- Bestelakoak.



VI. ORDEZKARIAREN ONARPENA (AUKERAKOA)

Izendapena onartzen dut eta, jaunaren/andrearen ordezkaria izatearekin ados nago. Ulertzen ditut ordezkatzeko dudako pertsonak agiri honetan adierazitako jarraibideak eta ados nago haiek betetzearekin. Garbi daukat nire ordezkari haren erabiltzea bidezkoa izanen dela ordezkatzeko dudako pertsonak bere kabuz jarraibide hauek adierazteko gauza ez bada, ez bestela, eta aldeztatik agiri hau ezeztatzen ez badu, osorik edo niri dagokidan partean.

DATA ETA ORDEZKARIAREN SINADURA

Izendatutako lehenbiziko ordezkariak ezin badu esku hartu, haren ordezkari beste hau izendatzen dut:

Izen-deiturak

NAN Helbidea

Herria Telefonoa

Ordezkari haren onartzen dut, goraxeago zehaztutako baldintza berberekin.

DATA ETA ORDEZKARIAREN SINADURA

AURRETIAZKO BORONDATEEN

A G I R I A